

# ORTZIren inguruan

**Kepa Dieguez**  
UEUko Arduradun Akademikoa, UEUKidea

Artikulu honen helburua bikoitza da, linguistikoa eta antropologikoa; beraz, etnolinguistikaren esparruan kokatu behar genuke: alde batetik adierazleari erreparatuz, *ortzi* hitzaren balizko jatorri etimologikoari argi apur bat ematen saiatzen da; horretarako berba honek eguraldiari buruzko euskal lexikoan duen eraginaren berri emateaz gain, hizkuntza zeltikoetako hitzekiko balizko erlazioa aztertzen da. Eta bestetik, adieraziari begira, euskal mitologia eta indoeuroparra azterturik, guztiz kontrajarriak direlako ondorioa ateratzen da.

The objective of this article is double, linguistic and anthropological; therefore, it must be located in the scope of ethno-linguistics: on the one hand, considering the formal component *ortzi* we try to reveal the origin of this word. For this purpose, besides to clarify the influence of this word in the Basque atmospheric lexicon, we examine in greater detail the possible relation with the celtic languages, and, on the other hand, Basque and Indo-European mythologies are examined and we come up with the conclusion that they are fully opposed.

1. 1880. urtean Fita zeritzan apaizak XII. mendeko kodize latindarrari buruzko azterketa argitaratu zuenetik hona, iritzi ugari plazaratu izan dira bertan agertzen den ustezko euskal hiztegirik zaharrenaren gainean. Hiztegitxo hori Aymeric Picaud izeneko erromes frantsesak burutu omen zuen ibilbide-gidaren tankera zuen kodizearen atal batean. Gomutaraz dezagun zer zioen beronek:

Deum vocant Urcia, Dei genitricem Andrea Maria,  
panem orgui, vinum arдум, carnem aragui, piscem  
araign, domun echea, dominum domus iaona, dominam  
andrea, ecclesiam elicera, presbiterum belatera,  
quod interpretatur pulchra terra, triticum gari,  
aquam uric, regem ereguia, sanctum Jacobum iaona  
domne Jacue (sic)

Bertan den lehen hitza, *Urcia*, hain zuzen ere, dela eta, Jainkoari irizteko zela-koan, han-hemenka teoria franko zabaldu ziren, berau, egia esan, aspaldi honetan ahantzixe dagoen arren. Teoriak orotarikoak izan dira; batzuk arlo fonetikoaz arduratu dira, beste batzuk semantikoaz edo mitologikoaz. Baina inork ez du jakin zelan askatu korapiloa. Azkenaldion arazo hau gehien ikertu duen Caro Barojak hauxe esan du: «Geure buruari egin beharreko galdera hauxe da: *Urtzi*, *Ortzi*, *Osti* eta abarretan agertzen den erroak zein jatorri ote du? Horrelako galderari erantzun egokirik emateko egoera aiposean ez nagoela aitortu beharra dut». Julio Caro Baroja antropologo eta historialari bikaina badugu ere ez da ausartzen erabateko erantzuna ematera, gai hau antropologiakoa ez ezik linguistikoa ere gertatzen baitzaigu. Eta hau esanik ez dugu adierazi nahi korapiloa guztiz askatuko dugunik. Ez. Beste bide batzuk hartuta, agian, argi izpi ñimiño bat ekar dezakegu oihan beltz honetara. Beraz, ez dugu bazterrean utziko baliagarri izan dakigukeen arlo bat ere. Euskalki guztiek lagundurik, fonetikaren bidezko barneko berregituraketa egiten saiatu gara, hau da, elkarretarik aldentzen diren euskalkiak ditugun arren, zorionez eta harrigarriro, hedapenagatik edo garapenagatik, gertatu diren eta gertatzen diren fenomeno mordoa komunak dira barietate askotan. Bestetik, euskal mitologia ezinbesteko tresna dugu euskal arima goitik behera ulertu nahi badugu. “Ortzi” arazoa taxuz eta ganoraz aztertzeotan, fonetikaz zein mitologiaz baliatu behar dugu ikerketa honetan aurreratuko bada. Hau dela eta, eskuratu ahal izan dugun corpusik zabalena erabili dugu behar bezalako ikerketa sakona opesteko asmoz. Hala eta guztiz ere, xehetasunen bat itzuri zaigu, nonbait. Corpus hau eraikitzeke denetariko ikerketa lanak eta obrak, hala nola hiztegiak, arakatu ditugu.

2. J. M. Barandiaranen arabera, baliteke Aymeric Picaud-ek ‘Urcia’ kontzeptua txarto ulertzea. Baina, haren ustez halako terminoa eguraldiari eta eguratsari lotutako euskal hitz askotan dago. *Urz-*, *Urtz-*, *Ortz-*, *Ost-* erroak zeruko argia edo zeru jainkotua adierazi nahi du. Astegun bat jainko honi eskainita dago, *ortzegun*, *ostegun*. Honi dagokionez, euskaldunek antzinako indoeuoparrek legetxe egin zuten. Beraz, indoeuoparren eragin sendoa egon bide zen euskaldunen erlijio kontzeptuetan.

Van Eys iritzi berekoa da. Germaniarren *donnerstad* eta euskaldunen *osteguna*, funtsean, gauza bertsua dira. Izen honetaz gain, Julio Caro Barojak

beste zenbait ematen ditu hizkuntza germaniarretan: *thor's day* (saxoiera), *thorsdagr* (eskandinabiera), *tordag* (daniera), *thorsdag* (suediera), *thursday* (ingeleza) eta *donderdag* (nederlandera). Euren arteko harreman fonetikoa begibistakoa da. M.G. Ramosek Picaud-ek *Urcia* zuzen interpretatu zuelakoa dauka. Ramosen aburuz *urtzi*-k 'trumoi-jainkoa' edo 'zeru jainkoa' esan nahi du, zeren *ortzi*-k trumoi, trumoi hodeia, zerua eta zeruko argitasuna adierazten du. Justo Garatek, oster, ez dio iritzi berari eusten. *Urcia* ez da Jainkoa, zerua baizik. Aymeric Picaud-en gaizki ulertua izango zen. Gerhard Bähr (1931) ikerlari germaniarrek "El arco iris y la vía láctea en Guipúzcoa" izeneko artikuluan beraien inguruko berbak, etimologiak, hedapena eta sineskizunak aztertzen ditu. Artikulu hori lan interesgarria dugu oso. Bähr-en ustez Picaud-ek jasotako *Urcia*-k ez zuen 'jainkoa' adierazi nahi 'zerua' baino. Berak bildutako hitzetan *osti*-elementua agertzen da gehien. Orduan (1931n) 'ekaitza', 'trumoi' edo 'trumoi-hodeia' esan nahi zuen, baina Gipuzkoa aldean, Azpeitian izan ezik, ia ez zen erabiltzen, *Turmoi* hitzak ordezkaturik. Juan Gorostiaga ez dator bat Bähr-ekin. Ezertariko zalantzarik gabe Aymeric Picaud-ek ondo ulertu zuen: *Urcia*-k 'Jainkoa' adierazten du. Hitz hori era honetara aztertzen du: *urtz-i -i* berrekailuak izena adjektibo bihurtzen du. Adibidez, *gatz + i > gazi*; *orraz + i > orrazi* (gure ustez *orrazi* ez da adjektiboa). Beraz, *urtz* (zeru) + *i > urtzi*, 'zerutiarra', 'Jainkoa'. Gainingiroki egin dugun ikerketa laburpen honetan garbi sumatzen da desadostasuna. Batzuen ustez *Urcia* 'Jainkoa' da, besterenez 'zerua'. Hitzaren eta kontzeptuaren jatorria iluna omen da, eragin indoeuroparrik baztertu behar ez badugu ere. Gure ustez, lehen aipatu dugun bezala, lan guztiotan (Barandiaranen ikerketaren norabidea desberdina zen) corpus zabalik eza eta bestelako kontzeptu eta elementuak aintzakotzat ez hartzea nabari da. Bähr-ek ahalegina egin bazuen ere, ikerketa murrizta egin zuen: Gipuzkoa aldea, eta oso arlo semantiko zehatza.

3. Guk geuk aipatutako ikerketa lanak irakurritakoan ondorio garbi-garbia atera ahal izan dugu: mendeetan zeharkako higatze fonetikoaren ondorioz, *Ortzi* ez da inondik inora jatorrizko hitza; hau da, euskal hitz guztiek nolabaiteko bilakaera fonetikoa jasan badute, zalantzarik gabe, darabilgun *Ortzi* berbak ere segur aski jasan du. Jatorrizkora helden saiatzea dugu lantxo honen xedeetariko bat. Bestalde, antzinako euskaldunen kontzepzio mitologikoak nahi eta nahi ez laguntza eman behar digu. Barandiaranek bildutako euskal kondaira gehienei darien mezu ideologikoa bete-betean kontrajartzen zaio mitologia indoeuroparrari. Hori ere ikerkizun dugu, zeren *Ortzi*-k adierazten duena herri indoeuroparren mitologiari lotuta baitago, eta ez euskal mitologiari.

4. Gure corpusean bildu ditugun hitz guztiek ageriko antzekotasun fonetiko eta semantikoa daukate. Esan gabe doa den-denak eguratsaren eta eguraldiaren ingurukoak direla. Esanahi bereko hitzen artean sailkapen bat egin dugu. Hauxe da:

1. Arco Iris: holtzadar, oltzadar, olzadar, ortzadar, orziadar, osadar, oskilate, ostabar, ostadar, ostalika, ostarku, ostarrrika, ostil, ostilleka, ostilika, ostraillaka, ostrailia, ostrailika, ostralika, ostreillaja, ostreillaka, ostriku, ostrilako, ostrilika, ostrillaja, ostrillaka, ozadar, oztarku, oztil, oztriku, sustruku, ustadar, ustargi, ustarku, usterku, ustrauku, ustruku, uztadar, uztai, uztargi, uztarri, uzterku, uzterpu, uztranpu, uztrauko eta uztruku.

2. Aurora: ortzeder.
3. Campana en San Martín que anuncia tronada: ostikanpae.
4. Cielo, bóveda visible: hortz, oltze, ortz, ortzalde, ortze, ortzi, orz eta orzi.
5. Cielo claro: osgarbi, oskarbi, ostri, ozkarbi eta oztargi.
6. Cielo sereno, claridad del cielo: hortzazki, ortzaizki, ortzargi, orzaizki, orzargi, orzoski, ostargi, ozargi, ozkarki eta oztargi.
7. Comenzar a amanecer: ostargitu.
8. Corona de la luna: ostri.
9. Fondo azul del cielo: ostondo.
10. Galerna, borrasca: ortzi-uri.
11. Granizo grande: jutzularri.
12. Horizonte: ortzemuga, osertze, oztalde.
13. Jueves: ortzegun, orzegun, eta ostegun.
14. Lluvia con sol: ostebi, eta osteleuri.
15. Lluvia de tronada: fustuleuri, jutzuleuri, ostalebi, ostaleuri, ostelebi eta ostraebi.
16. Nebulosa: oztodei.
17. Nube atronadora: jutzulodai, jutzulodei, ortzi eta hortz.
18. Nube roja, cielo rojizo: hortzgorri, orzgorri, osgorri, oskorri eta ozkorri.
19. Poniente: ostalde.
20. Ratos de claridad en el cielo: oskarbi-une eta ostarte.
21. Rayo: hortzi, ihortziri, irurtziri, iyurzuri, jusluri, ortzi, orzantz, oxme, ozme, ozpinarri, ozpiñarri, ozpirin eta ozpriñ.
22. Rayos intermitentes del sol: ortxinga eta ostarte.
23. Relámpago: iñusturi eta jutzuri.
24. Retumbamiento del trueno: oztosketa.
25. Serenarse el cielo: oskarbitu, ozkarbitu.
26. Tempestad: ortze, ortzi, orzantz eta urtzi.
27. Tronar, atronador: hortzitu, igortziritsu, ortosketan, ortzitsu, orzanza ari, orzanztu, ostosari eta oztosari.
28. Trueno ehurtziri, ehurtzuri, ehurziri, eurtzuri, eurziri, fusturi, igorziri, igortziri, ihaurtziri, ihaurtzuri, ihaurzuri, ihortziri, ihortzorio, ihortzuri, ihurtziri, ihurtzuri, ihurziri, ihurzuri, iñusteri, iñusturi, iortziri, irurtziri, irurtzuri, iurtziri, iurtzuri, iusluri, jostoi, jusluri, justuri, jutzuri, ortots, ortantz, ortzi, ortzi-azantz, ortziri, ortzorru, orzantz, osti, ostots, ostrai, ostroi, ozantz, ozkar, ozkarri, ozme, ozmin, ozminarri, ozti, oztots eta oztroi.

29. Vía láctea: ostalika, ostralika, ostreillaja, ostreillako zubi, ostrelika eta ostrolika.
30. Viento de tormenta que precede a la tormenta: ostaize.
31. Viernes: ortzilare, ortziraile, ortzirale, orzilare, orzirale, ostiela eta ostiral.

5. Autore gehienak emandako zerrendan hitz guztietan zerbait komuna dagoelakoan daude. Barandiaranen ustez, *Ortz*, *Ost*, *Ortzi* edo *Urtzi*, osagai gisa duten eratorritako berbetan edo eratorri barik, zeruko jainkoa edo zeruko argia adierazten zuena, euskaldunak Neolito aroaren bukaeran hasi ziren gurtzen.

Guk, ostera, *Ortz*, *Ost*, *Ortzi* eta *Urtzi* hauek baino lehen, beste tankera bateko hitzen bat izan ez ote den susmatzen dugu. Saillapenean xehetasun bat nabari da: 'Trueno' eta 'Arco iris' esateko erabiltzen diren hitzak, ugari dira, eta kasik euskalki guztietan aurkitzen ditugu. Baina, ez dugu uste jatorrizko elementua *Ortz*, *Ost*, *Ortzi* edo *Urtzi* denik.

'Trueno' adierazteko berben artean, begiratu arina egin behar baino ez dago gauza nabarmen batez ohartzeko: konposatuak badira ere, berauen lehenengo osagaiak bestelako itxuratze fonetikoa dauka: *ehurtz-*, *ehurz-*, *ehurz-*, *eurtz-*, *eurz-*, *fust-*, *igorz-*, *igortz-*, *ihaurtz-*, *ihaurz*, *ihortz*, *ihurtz*, *ihurz-*, *iñust-*, *iortz-*, *irurtz-*, *iurtz-*, *ius-*, *jos-*, *jus-*, *just-*, *juzt-*, *ort-*, *ortz-*, *orz-*, *ost-* eta *oz-*. Inolako zalantzarik gabe hondamendi fonetiko baten aurrean gaude. Zail gerta daiteke ganorazko berreraikitzea egitea, erraz-erraz hanka sartu gabe. Hitzek jasandako higatze fonetikoa sano handia izan da.

6. Nekez baldin bada ere, gorago aipaturikoen antzekotasun fonetikoa daukaten zenbait hitzen azterketa egingo dugu. Adibidez, Mitxelenaren arabera, gaur egungo *hezur* berbari honelako zerbait gertatu bide zaio: *\*enazur* > *\*ehazur* > (*h*)*ezur*. Beste hitz batzuetan antzeko bilakaera suertatu da antza: *ehortzi*, 'enterrado', baina hauexek ere bai, *ohortze* (Leizarraga), *ohore*, 'honor', *uhu(r)e* (zubereraz), *ore* (erronkarieraz), 'honras fúnebres', *ortzi*, *ortzitu* (nafarreraz), 'enterrado' eta *ortzitu* (bizkaiera arkaikoan) 'enterrado'. Mitxelenak dioenez, *berez-i* eratu zen bezelaxe azaldu behar da, hau da, *\*honor(e)zi* > *\*ohorzi* > *ohortzi* > *ehortzi* > *orzi* > *ortzi* > *ortzitu*. Adibide gehiago: *\*enor* > *inor* > *ihor* > *ihur* > *iur* > *ior* > *nehor* > *nihor*

'Carnaval' adierazteko hitzen artean hauexek aurkitu ditugu: *ihaute*, *ihauteri*, *ihautiri* (BN, L), *ihauti(ri)* (Z), *igautere* (Aezkeraz), *inhauteri* (BN, G), *iñaute* (NG, E), *iote* (NG, Saraitzueraz), *iñoteri* (NG) eta *iñute* (NG, G), hitz eratorrietan. *Jaurtiki* aditzaren aldagarriek honako hau pentsarazten digute: *\*e-au-* hasten ziren aditz erradikalak, beharbada baldintza berezi batzuen ondorioz *au-* eta *eu-* bihurtu ziren *j-au-*raino heldu beharrean. Adibidez: *aurdigi*, *aurdiki* (Leizarraga), *aurt(h)iki* (NG, G, L.), *art(h)iki*, *jaurtiki* (NG, G) *jaurtigi*, *jaurti(n)*, *jaurtu* (B), *eurtiki* (Arakistain), *urtigi* (B), *urthiki* (Géze), *urthuki* (Z).

Mitxelenaren arabera *au* diptongoa gehien agertzen da euskararen aro historikoan. *Au-*k iraun du edo sarritan *o* eta *u* bilakatu da bai barruko bai

amaierako silaban. Adibidez: *arrautza*, *arraul(t)ze* (NG, G, L, E, Z), *arroltze* (NG, BN, Saraitzueraz), *arrultze* (BN) eta abar.

\**Edun* aditzaren orainaldiko formetan prozesua nabarmena da: \**daut* > *dut* (L, BN, Z, NG); > *det* (G) ; > *dot* (B)

Alfontso Irigoienek ustez *euskara* hitzaren lehenengo osagaian \**enausi* > \**eusi* aditza dago. Beronen erroa bizkaierazko adizkietan dugu: *diñaust*, *diñost*. Honela, XVI. mendean Garibayk erabiliriko *enusquera* forma azal liteke.

Bestalde, Mitxelenak oso xehetasun interesgarria eta baliagarria ematen digu antzinako euskal silabaren taxuerari dagokionez:  $A > (W) > (R) > (S) > (T)$ . *A* edozein bokal izan daiteke, *W* erdi bokal bat (diptongoaren bigarren osagaia), eta *R*, *S*, eta *T*, edozein sonante, txistukari eta leherkari, hurrenez hurren. Ordena aldaezina da eta sail bakoitza dagokion fonema batez besterik ezin daiteke ordezkaturia izan. Bokal gunea, behinola aurretik kontsonante bat eraman zezakeena, ezinbesteko osagaia zen. Gipuzkoa eta Nafarroa Garaiko leku askotan horretarako joera egiaztatu da: beste euskalki batzuetan baldintza beretan den aspiratzea edo aspiratzerik eza agertzen da *i*-ren atzetik, lehenkaria edo \**e*-tikoa, lehenengo eta bigarren silabaren artean, eta ez aurrerago, hau da, gutxi gorabehera, baldintza beretan aspiratzea den edo ez den gainontzeko euskalkietan. Adibidez: *iharrausi* eta aldakiak, *ihausi*, *ihauteri*, *gihar*.

*Ihardun* aditzari dagokionez, *inardun* (B), *jardun* (G). Ekialderaxeago *iharduki* eta *ihardetsi* ditugu. Alfontso Irigoienek euskalki batzuetan -*g*- antiyod bat garatu dela frogatu du testuinguru batzuetan. Adibidez, Baigorri *oligua* erabiltzen da 'olioa' esateko. Bizkaieraz *igaz* eta ez *iaz*. Hitz zenbaitetan [x] > [f] gertatu da. Adibidez, Oñatin, *fusturi* (*justuri*) eta *fustuleuri* jaso ditugu.

7. Beraz, emandako adibide guztien arabera zenbait ondorio atera dezakegulakoa daukagu:

- a) *au* > *o*, *u* sarritan gertatzen da euskaran.
- b) \**e* - *au* > *jau*, *aur*, *ar* inguramendu batzuetan ez da arraroa.
- c) \**ena* > \**eha* > (*h*)*e*, *hezur* hitzari gertatu bide zaio.
- d) \**enau* > *inau* > *inu*, *ino* > *io*

> *iau* > *igau*

> *ihau*

Hauxe da *inauteri* eta beronen aldakien bilakaera.

e)  $A > (W) > (R) > (S) > (T)$  omen da antzinako euskal silabaren taxukera.

f) -*n*- > -*ø*- Adibidez: *aate* (*ahate*)

> -*h*- Adibidez: *ihor* (\**enor*)

> -*g*- Adibidez: *igautere* (*ihauteri*)

> -r-        Adibidez: *arate* (*ahate*)

g) -g- antiyoda zenbait euskalkitan arrunta da.

i) [x] > [f] hizkera batzuetan.

8. Ondorio hauetaz guztiez baliaturik, gure zerrendako hitz guztien lehenengo osagaia \*(k)*enaurz(i)* delakoan gaude. Ezarri dugun (k) geroago azalduko dugun kontsonantea da. \**enaurz(i)*-tik abiatuturik edozein hitzi egoki dakiokela uste dugu:

\**enaurz(i)* > \**ehaurz* > *ihaurz* , *ihaurtz* > *ihurz*, *ihurtz*, *ihortz*, *ihortz*,

*iurtz*

*iorz* > *igorz*

> *ehurz*, *ehurtz* > *eurz*, *eurtz* > *urz*

*urtz*

> \* *ehurz*, \**ehurtz* >

> *horz*, *hortz* > *orz*,

*ortz* > *ozt*, *oz*, *os*

> \**enaurtz* > \**inaust* > *inust* > *iust* > *just* > *fust*

> *iost* > *jost*

> \**iraurtz* > *irurtz*

9. Aipatutako \*(k) kontsonanteari dagokionez, susmoa baizik ez dela esan behar dugu. Gogora ditzagun zein hitz erabiltzen dituzten herri indoeuroparrek ‘zeruko jainkoak’ eta ‘trumoi-jainkoak’ adierazteko: germaniarrek *Donar*, eskandinaviarrek *Thorr*, zeltek *Taranus*, *Taranis*, *Taranutitus*... Bretoieraz eta kimrueraz *tarann* eta gaeleraz *torann* berbek ‘trumoi’, ‘urtzi-ortzi’ esan nahi dute. Oroit ditzagun orobat ‘osteguna’ esateko gaur egun European zehar erabiltzen diren hitzak: *Thor’s day*, *Thorsdagr*, *Tordag*, *Thorsdag*, *Donnerstag*, *Thursday* eta *Donderdag*. Guztiek daukate *t-*, *th-* edo *d-* hitz hasieran. Zer jazotzen da \**enaurz* formari aurretik *t(h)* eransten badiogu? \**t(h)enaurz* dugu. Begi-bistakoa da horren eta izen zelten arteko antzekotasun fonetikoa: *Taranus*, *Taranis* / \**T(h)enaurz*. Koldo Mitxelenak (1957) “Las antiguas consonantes vascas” izeneko artikuluan ondokoa zioen:

En los dialectos que conocen la aspiración, las oclusivas sordas son a menudo aspiradas. Cualquiera que sea la posición fonológica de las oclusivas aspiradas en los dialectos actuales, es evidente que son escasísimos los casos en que el contraste sorda pura / sorda aspirada sirve para distinguir significados, si esto ocurre alguna vez. En todo caso, la presencia o ausencia de la aspiración está determinada, dentro de límites bastante restringidos, por el contexto y la posición de la oclusiva en la palabra, lo que nos autoriza a concluir que, sea cual fuere la razón de esa distribución —hay que buscarla según toda probabilidad en las condiciones acentuales—, oclusivas sordas aspiradas y no aspiradas no constituían en otros tiempos más que variantes fonéticas de los mismos fonemas. Se observan dos notables asimetrías en

el sistema oclusivo vasco. Ha sido también Martinet quien ha señalado que p, incluso entre vocales, es sensiblemente menos frecuente que t o k. En realidad, en palabras que ofrecen alguna garantía de no ser de introducción reciente, acaso no se encuentre más que el par “ibar” / “ipar” en que p contraste con b con valor distintivo. Por otra parte, faltan casi completamente formas nominales que empiecen por d- o t-, excepto en préstamos y formaciones expresivas.

(...) Dentro de la hipótesis de Martinet, la sílaba inicial llevaba el acento o tenía al menos un relieve especial: también aquí debemos suponer, pues, una pronunciación aspirada de las oclusivas fuertes. Recordemos, por otra parte, la ausencia de oclusivas apicales antiguas en esa posición. Esta simetría se explicaría por una pérdida análoga a la que hemos supuesto en -(t)ar, suficientemente antigua por otra parte para que no haya afectado en masa a los préstamos latinos. Ahora bien, t- es frecuente en nombres aquitanos. Y, sin embargo tal vez se descubran indicios de que el paso de t- a h- se había cumplido ya en una zona aquitana. Junto a Talsconis Gen. En el país de los Elusates y Talseia, en el de los Ausci (-eia es terminación abundante en nombres de mujer), hallamos Halsconis Gen. cerca de Luchon y Halscotarris Gen. en Valcabrere, que parecen variantes de un mismo radical, que incluso podría relacionarse, como ya lo hizo Shuchardt, con lb. -Dals en Tautindals, nombre de uno de los componentes de la Turma Salluitana. Si estas comparaciones fueran correctas, servirían de prueba de que, en una zona próxima a los Pirineos, el Aquit. había sufrido un cambio que tenemos también que postular para el antecesor directo de los dialectos vascos modernos. No hay indicio semejante en Ibérico, donde t- (véanse por ejemplo los nombres del Bronce de Ascoli) es frecuente. En cambio, d- parece escaso, casi inexistente (hay un dadula en el plomo de Alcoy), mientras que no son raros los nombres aquitanos que empiezan por esa letra aunque no puede excluirse la idea de que muchos de ellos, como algunos sin duda lo son, sean de origen indoeuropeo.

Beraz, badirudi aitzin-euskarak hasierako t- onartzeko zailtasunak zituela. Antza denez leherkari gor hau aspiratzen zen. Baliteke honelako bilakaera gertatzea:  $T > TH > H$ . Esku artean euskal hiztegia hartzen badugu, berehala gauza batez konturatuko gara: t-z hasten diren hitz gehienak ez dira jatorrizkoak, maileguak dira. Honen arabera, agian zelten eraginez, euskarak bere gain hartu zuen ‘ekaitzak’ eta ‘zerua’ izendatzeko herri indoeuoparren artean hedatuta zegoen hitza: *taranis*, *taranus*. Hau dela eta, gorago egindako hipotesiari, *th-* erants dakiokelakoan gaude:  $*thenaurz(i) > *henaurzi > *ehaurzi$ . Jakina denez [h] bi ez dauka euskal hitz batek ere. Honegatik *hortzi*, bai  $*henaurzi$ -tik bai *enaurzi*-tik abiatu azal liteke. Gogorarazi dezagun Leizarragak *heuskera* erabiltzen zuela, beharbada *enuskera*-tik zetorrena.

10. Guk bildutako corpusean, euskalki beraren barruan izanda ere, ‘trueno’ eta ‘arco iris’ esateko eboluzio fonetiko desberdina izan duten hitzak erabiltzen dira. Gaingiroki begiraturik, batek baino gehiagok esan lezake ez direla jatorri bereko berbak. Guk ez dugu horrela denik uste. Segur aski, hiztunak arlo semantiko desberdinak izendatzeko bereizi zituen hitzak. Bikote hauek euskalki gehienetan gertatzen dira. Jarraian, zerrendatxo ematen dugu:

*lhaurziri* (L) ‘trueno’ / *Ortzadar* (L) ‘arco iris’

*E(h)urziri* (BN) ‘trueno’ / *Orzadar* (BN) ‘arco iris’



*Justuri* (B) ‘trueno’ / *Uztarku* (B) ‘arco iris’

*Iñusturi* (G) ‘trueno’ / *Ostralika* (G) ‘arco iris’

*Ihurziri* (Z) ‘trueno’ / *Ostadar* (Z) ‘arco iris’

Barandiaranek uste du eguraldiari lotutako hitz askotan agertzen den *in*-hasiera antzinako euskaldunek zerua adierazteko erabiltzen zuten beste hitz bat izan litekeela:

De varios de los nombres del rayo, del trueno y del pedrisco se puede inferir que el cielo fue también designado con el vocablo IN. Así, a ORTZIRI “trueno” corresponde INUSTURI “trueno” de Ataun; a OZKAR “trueno” de Arratia y a OZKARRI “trueno” de Zumarraga IYAR de Esteribar, INHAR “relámpago” de Labourd e INHAZI “rayo” de Tardets. A este círculo corresponden los nombres INHAZI “rayo, relámpago”; IÑETASI “granizo”; IÑISTUE, IÑIZITUE “relámpago”; IÑATAZI “pedrisco”; IÑASTURA “relámpago, rayo, lluvia de estrellas”; INDRISKA “chubasco”; INTZ, INONTZ “rocío”. En todos la raíz IN ocupa el lugar que las ORTZ, URTZ y OST “cielo” ocupan en voces de análoga significación. Es posible que esta vieja raíz sirviera para la formación del nombre INKO con que hoy se llama a Dios en algunas regiones del país vasco (Barandiaran, 1972: 136).

11. Orain arte jasoriko hitz guztien lehenengo osagaiaz baino ez gara mintzatu. Gure datuen arabera \**t(h)enaurz(i)* izan litekeela esan dugu. Baina zeintzuk dira berbetan agertzen diren bigarren osagaiak? Batzuk garbi-garbiak dira. Adibidez: *(h)ots, azantz, euri, odei, (h)arri, argi, gorri, garbi, adar, arku, arte, egun, ertze, (h)aize, alde, kanpae, une eta ondo*. Berauen esangura nabari bide da. Beste batzuei, hala ere, ilun samar deritzegu. Azter ditzagun banan-banan:

‘Trueno’, ‘rayo’ eta ‘relámpago’ adierazteko hitz gehienek *-(i)ir* edo *-(u)ri* daukate bigarren osagaitzat. Bigarren kasu honetan badirudi  $I > U$  gertatu dela aurreko *U*-ren eraginez. Adibidez: *ehurtziri > ehurtzuri*. Beraz, *-(i)ri*-k jatorrizko osagaia ematen du. Beronek baditu hitz eratorriak ere, *-L*-bihurtzen delarik: *juzturi + euri > jzutuleuri*. Baina zer ote da eta nondik ote dator *-(i)ri* hau? Gure ustez bi gauza besterik ezin izan daiteke: batetik, zenbait hitzek atxikita duten *-iri* berrekailua, zeinek ‘ingurua’ esan nahi baitu. Adibidez: *arrastiri, atari*. Bestetik, interpretazio mitologikoa emanez, euskal mitologian euskaldunen ama nagusiak (*MARI, AMARI*), barnean daraman amaieran lotuta egon liteke lehen aipatutako hitzei. Horrela izanez gero, sinkretismo kasu baten aurrean geundeko. Bateko, jatorri indoeuroparraren mailegua, \**t(h)enaurz(i)*, eta besteko, euskal itxurazko amaiera *-(i)ri*.

*Ostrilaka* eta antzeko formei dagokienez, G. Bähr-ek (1931a) hauxe idatzi zuen:

(...) se puede considerar a *ostri* como modificación correspondiente de *osti*, exactamente como aún existe en Guipúzcoa *ostro* “hoja” al lado de *osto* que es la forma corriente (probablemente diminutivo de *orri orristo*). Resulta pues que la *-r* de *ostrailaka* pertenece al componente inicial. Seguramente son del caso unos vocablos poco conocidos de idéntico origen y semejante derivación, a saber *ostrai* y *ostel-euri*. ...*ostel* parece presentar un sufijo *-el* o simplemente *-l*, pues *ostel* podría ser idéntico con *ostil* de Azpeitia (de *osti* y *-l*?) aunque esta última palabra significa “arco iris” y no “tronada” como aquella. Por evidente que sea el nexa que existe entre *ostrailaka*

y *ostrai*, *ostr-*, *ostel-*, *ostal-* no es fácil apreciar de qué género es la relación. No hay que olvidar tampoco que en el sur de Guipúzcoa llaman al tiempo bochornoso “*eguraldi ustel(a)*” expresión cuya traducción literal sería “tiempo podrido”, que no satisface por cierto, siendo posible que *ustel* no fuera sino una modificación de *ostel*. Ahora bien, si partimos de esta palabra considerándola como parte integrante de *ostraillaka*, su segundo elemento debiera ser -AKA (IKA), en cambio si tomamos por base *ostrai* sería -laka (-lika). De todos modos ni el uno ni el otro ni tampoco \*-(a)illika se pueden explicar con el léxico actual de la lengua y quedaría completamente oscura su significación si no acudiéramos a otro tipo de razonamiento. En efecto, si tenemos en cuenta que, según queda dicho más arriba, el centro de la provincia está ocupado por *ostraillaka*, el noreste por *ostadar*, el oeste por *ostarku* —teniendo estas dos últimas denominaciones idéntica significación— y que estos tres vocablos se usan cada uno en una región bien determinada de Guipúzcoa —aunque perteneciendo a diferentes dialectos— no resulta nada atrevida la suposición de que también *ostraillaka* deba traducirse de manera análoga, es, a saber, por *arco del cielo* (...).

Bähr-ek ateratako ondorioak zuzena ematen du. Beraren ustez *ostadar*, *ostarku* eta *ostraillaka* hitzek esanahi berbera daukate: ‘Arco del cielo’. Lehenengo osagaia garbia bada ere, *ost*, bigarrena *ostraillakaren* kasuan ilun samarra da. Ageri denez, *adar* eta *akur* gauza bera direla esateko ez dugu inongo arazorik. Bähr ez da gai *ostraillaka* eta beronen aldagarrietan diren elementuak azaltzeko. Gure ustez \**ostilarka*-tik etor litezke, *ostil ostiri*-tik datorrelarik. Baliteke, *hostro* kasuan bezalaxe, \**ostilarka* > *ostirilaka*, *ostraillaka* eta abar gertatzea. Bähr-ek Gipuzkoa aldean ‘arco iris’ adierazteko jasotako beste zenbait hitzetan ere bada *arka* hitza. Ipar ekialdean ugari dira: *intxearka*, *itzearka*, *inzerka*, *intzirka*, *inzirki*. Beraz, horien bigarren osagaia *arka* bide da. Zalantzarik gabe *akur* eta *arka* hitzen jatorria arrotza da. Beste hizkuntza batzuetan *arka* hitza ere erabili ohi da ‘arco iris’ esateko: Italian (Arbedo) *arca de Noe*, Sardinian *arcu de Noe* eta *arke* Tarn-et-Garonnen (Frantzia).

12. Segi dezagun, bada, bigarren osagai ilun samarrak aztertzen. Esate baterako, ‘trueno’ eta ‘rayo’ adierazteko erabiltzen diren zenbait berbaren azalpena ematen saiatuko gara. Hauexek ditugu: *ozkar*, *ozkarri*, *ozme*, *ozmin*, *ozminarri*, *oxme*, *ozpinarri*, *ozpirin* eta *ozpriñ*. *ozkar orzi* + *gar* izan daiteke, hau da, ‘llama celeste’. *orzi* + *gar* + (*h*)*arri* > *ozkarri*. (*h*)*arri* beste hitz batzuetan ere badugu: *ozminarri* eta *ozpinarri*.

Mitxelenaren arabera m/b (p) alternantzia asimilazio desasimilazioagatik jazo ohi da. Honen arabera azalduko genituzke *ozme*, *ozmin*, *oxme*, *ozpinarri*, *ozpirin* eta *ozpriñ*. Bigarren osagaia \*bene, \*bini ‘lengua’ izan liteke: \**ben(e)* > \**men(e)* > \**mehe*; \**bin(i)* > \**min(i)* > *mih*

Beraz, *orzi* + *me* > *ozme*, *oxme*; *orzi* + *min(i)* > *ozmin*; *orzi* + *bin(i)* > *ozpirin*, *ozpri*; *orzi* + *bin(i)* + (*h*)*arri* > *ozpinarri*. Kasu guztietan ‘lengua celeste’ edo horrelako zerbait adierazten bide dute aipatutako hitzek.

Sibilantea + Leherkaria + Sibilantea-z osatutako taldeak maileguetan gertatzen dira eta baita sinkopa eta metatesiz ere: *eskla* (zaraitzueraz), *iskla* (erronkarieraz), *ezkila*; lapurteraz (d’Urtek eta abarrek) *ozprin* < *orzpin*; bizkaieraz *ustruku* < *ost-arku*.

13. 'Arco iris' adierazteko erabiltzen diren bizkaierazko aldagarrien artean *sustruku* bitxia dugu oso. Hasierako sibilantedun eta sibilante gabeko berbak dokumentatuta egonez gero, galdu delako usteari gutxitan eutsi dakiok, zeren sarri birduplikazioak izaten baitira. Adibidez, bizkaieraz *susmatu*, gipuzkeraz eta bizkaieraz *susmo*, aezkeraz, nafar garaieraz, lapurteraz eta zaraitzueraz *usmatu*, eta nafar garaieraz, behe-nafarreraz eta lapurteraz *usnatu*. Bizkaieraz entzuten diren gainerako hitzek ez dute hasierako sibilanterik: *ostarku*, *ostriku*, *ustarku*, *usterku*, *ustrauku*, *ustruku*, *uzterpu*, *uztranpu* eta *uztruku*. Sustruku Arratia eta Txorierrri aldean erabiltzen den forma dugu. Guztion bigarren osagaia *akur* da eta aldakuntza fonetiko nabarmenak gertatu dira. Goratxoago aipatu dugunaren arabera, geratzen den taldea, sibilantea + leherkaria + sibilantea ez da arrotz gertatzen: *ostriku*, *sustruku*, *ustrauku*, *ustruku*, *uztranpu* eta *uztruku*.

14. *-argi*, *-azki* amaiera duten hitzen artean hauexek aurkitu ditugu: *ortzaizki*, *orzaizki*, *orzargi*, *orzoski*, *ostargi*, *ozargi*, *ozkarki*, *oztargi*, *ustargi* eta *uztargi*. Lehenengo eta behin esanahiaren arabera sailkapena egingo dugu. Euskalkia edota idazlea ere adieraziko dugu:

'Claridad del cielo': *ortzaizki* (BN), *orzaizki* (BN, Zaraitzueraz), *orzargi* (Erronkarieraz), *orzoski* (Ohienarte), *ostargi* (NG, B, G, L), *ozargi* (Erronkarieraz), *ozkarki* (Lizardi) eta *oztargi* (NG, B, G).

'Arco iris': *ustargi* (G) eta *uztargi* (NG, G).

Mitxelenaren ustez *-z*- kontsonanteak *-r*- ordezkatu du. Fenomeno hau behe-nafarreraz baino ez bide da gertatzen. Euskalki horretan *ilargi*-ren ordeztasunak *ilazki* erabiltzen da. Zenbaitek *ilazki*, *ilargi* eta *eguzki*-ren arteko gurutzaketaz sortu dela esan dute. Hala ere, hori azalgaitza da Otsagin *ilaski* erabiltzen delako eta ez *ilazki*; *-s*- honek ez du ematen *eguzki*-ren eraginez eratua denik. Itxura denez, behe-nafarreraz agitzen den aldaketa fonetiko bitxia da. Beste euskalkietan ere horretariko alternantzia jazotzen da berba batzuetan: *arnasa* / *asnasa*, *ernatu* / *esnatu*, *irla* / *isla*.

14. Orain arte eguraldian nabari diren *Urtzi*-rekin lotutako hitz batzuen alderdi fonetikoaz baino ez gara arduratu. Zenbaiten nondik norakoaren berri ematen saiatu gara. Antza denez, herri indoeuroparrek, beharbada zeltarrek, ekarritako mailegu garrantzitsua da: *\*t(h)enaurz(i)*. Berba hau abiapuntutzat hartuta, eguraldiaren arlo gehienetan bestelako formak garatu dira han-hemenka. Datozen orrialdeetan zelan mailegu hau lexikoari baino ez dagokion frogatzen ahalegin-duko gara, hau da, *forma hutsa da eta ez kontzeptua* zeren hona arteko ikerketa mitologiko guztien arabera euskal mitologia guztia, salbuespenak salbuespen, goitik behera kontrajartzen baitzaio indoeuroparrari. Joandako mendearen amaieran eta honen hasieran bilduak izan badira ere, euskal kontakizun mitikoek ez dute Aymeric Picaud-en *Urtzi*-ren ezertariko lorratzik azaltzen. Jarraian erakutsiko dugunaren arabera, erromes frantsesaren adierazpen hori gezurtatzen duten hainbat egitura eta kontzeptu mitologiko aurkeztuko dugu. Barandiaranek jasotako kontakizun mitologikoetatik atera daitekeen ondorioa ezin garbiagoa da: euskal mundu mitologikoak eta indoeuropearrak ez daukate inolako zerikusirik, areago, elkarren aurkakoak dira. Indoeuroparrentzat munduak alde bi dauzka: Zerua eta Lurra, hurrera ezin daitezkeenak, Zerua iritsi ezina da eta. Euskal-

dunentzat, ostera, mundua bakarra da: ortziak ('firmamento', Zerurik ez baita), lur-gainak eta lurpeak osatzen dute euskal kosmosa. Oro har, berezko euskal kultura matriarkal-naturalista eta komunalista da, indoeuroparra patriarkal-arrazionalista eta inbidualista, ordea. Matriarkalismoa esatean ez dugu "matriarkadoa" (emakumeek menderatutako gizartea) adierazi nahi. Andrés Ortiz-Osése (1988) dioenez, «...el matriarcalismo implica una estructura psicosocial en la que el arquetipo matriarcal-femenino impregna, coagula y cohesiona el grupo social de un modo diferenciante». Hala eta guztiz ere, antzinako euskal kulturari bestelako kultura patriarkalek eragin diote: herri indoeuroparrak (zeltarrak, seguruenik), erromatartzea, kultura espainiarra eta industrializazioa izan dira eragile nagusiak. Dena dela, Euskal Herriaren kokapen geografikoak, hala nola garapen teknologikorik ezak, patriarkal-arrazionalista tankerako testuinguru indoeuroparrean sartzea geldiarazi zuen. Beraz, batik bat Barandiaranek, bildutako euskal mitologia ezin uler daiteke, egin ohi izan den legez, mitologia indoeuroparraren bitartez. Zenbait mitok, eguzkia-sua-eguna zikloari dagozkionak bereziki, mitologia indoeuroparrarekin badute zerikusirik. Halarik ere, euskal mitologia ez dago azaltzerik tresna patriarkal-indogermaniarrak erabiliz, baizik eta, halako eguzki-mito arrazionalisten azpitik eta gainerik indoeuroparren aurreko antzinako berezko mitologia dago, zein matriarkal-naturalista tankerakoa baita. Euskal mundu mitologiko honetan Mari da Jainkorik handiena, ekaitzak sorrarazi eta jaurtitzen dituena. Gure gaiari dagokiona, hauxe dugu garrantzizkoena: eguraldiari lotutako kontakizun guztietan Mari azaltzen zaigu eta Ortzi egundo ere ez.

15. Ipazterren, Otoio mendi-gailurra lainotuta agertzen zenean honakoa entzun ohi zen sarritan: «Marie labakok labakoa dauko da eurie eingo dau laster» (Barandiaranek bildua).

Udabe (Nafarroa) herriko Dorrea etxeko atso batek herri hartako mendiko kobazuloan Mari-burute izeneko jenioa bizi zela esaten zuen. Herriko apaizak, urtero behin, bedeinkapena ematera joan behar zuen kobazulora, ezperen, urte osoan txingorra eta ekaitzak izango ziren. Barandiaranen beste kontaera batek hauxe diosku:

Eguzkiak eta eurija batian dianian, erteten emen du Anboto'ko Damak bere zulotik, eta urrezko orrazi batekiñ orrasten emen du bere ille ederra. Ta ostial arratzaldietan berriz, ordu bijetan, inpernuko etzaye juten ementzako illia orrastera.

Azkoitia aldeko berrien arabera, Maju (Mariren senarra) joaten omen zaio lantzean behin. Hau dela eta, ekaitz gogorra sorrarazten da. Gorritin Adurezko-Mari esaten diote jenio honi. Berau Aralarko leize batean neskame dago, zeinetatik ekaitzak sorrarazteko hodeiak ateratzen omen baititu. 1931.ean Amezketako J. Arandiak hauxe kontatu zion Barandiarani:

Ugarte Amezketako Zubi deitzen zaion baserri bateko basoan arkitzen da Azarizulo, Aralar'ko Dama toki batetik bestera aldatzen dabilleneko atsedeen-lekua. Dama ori bere amak madarikatutako alaba gaizto bat zala esaten dute. "Etsaiek eramengo al aute!" esan ementzion. Ta seituan su ta gar izkutatu emen zan. Iru arkaitz-zulotan bizi izaten emen da. Beiñ Aralar'en; beste beiñ Aizkorri'n eta Burumendi'n. Izugarritzko turmoi ta tximistak izaten emen dira sorgiñ au mendi batetik bestera aldatzen dan gaeuan.

Bi gizon indartsu, santuz eta eskapulaioz beteta juan ementziran beñ sorgiñ au zegoan arkaitz-zulora, ori ze ote zan jakiteko. Ta illea orrazten arkitu ementzuten, bi urrezko kandeleru aurrean zituala. Gizon aiek ikustean, leiza-zuloan barruna sartu ementzan, kandelaruak utzita. Ta gizonak beren kolkoan sartu bi kandeleroak eta etxera eraman emen zituzten. Baño etxera irixteako zapo biurtuta emen zeuden urrezko kandelaruak.

Mañarian bildutako beste kontakizun batek honako hau dio:

Lengo arratsalde baten, iru edo lau lagun baso ibilketa bat egiñez egurasten giñoazala, erreka baten ondoko zugatzarte baten kerizpe ederrian atsedenduaz barriketan gengoan. Onetan bape uste barik artzaiñ agure bat urreratu yakun, eta bera be atsedenduaz gure albotxuan yezarri zan. Aguretxuaz barriketa aldi luzian gengoan eta gauza askotzaz berba egin gendun, eta azkenez, atara genduan udara onetan batian-bestian izan diran ekatxak eta abar. Eguraldiyatzaz ainbat modutara berba egin gendun; bako txak bere eretxiya azalduten genduala. Alako baten, artzain-aguria zutundu zan, eta eguraldiyatzaz gauza aundiren bat esan bear ebala-ta adi-adi begira yarri gaiyakozan. Orduan ben-ben asi zan eguraldiyaren zegaitiya esaten.

—Ara, Santa Barbara egunian Anbotoóko señorie koba barruen sartuta egoten bada, hurrengo udie ona eta ugariye izango da; baña egun orretan kobatik kanpora izaten bada, hurrengo udan sekuleko ekatx eta triskantzak izaten dira. Ta igaro dan urteko Santa Barbara egunien or Mugarra aldian ibili ei-zan su ta gar Anbotoko señori oi; ta orregaitik dira aurtengo ekatx, turmoi enparau ezbiar guztiyok.

16. Ikus dezagun zer dioen J.I. Hartsuagak bere *Euskal Mitologia konparatua* liburu bikainean (ideien bilketa da):

Lurpeko mundua da fenomeno atmosferikoen sorlekua, MARIren egoitza, hain zuzen ere. Euskal zerua berauek gertatzen diren pasalekua baino ez da. Mitologia indoeuroparrean, zerua jainkoen egoitza da, eta haserretzen direnean ekaitzak sortarazten dituzte. Marik sortarazi, jaurti eta sarritan gidatzen ditu ekaitzak, baina ekaitz osoa, hodei multzoa gidatzen du harria nahi duen lekuan bota arte. Mari leize, kobazulo eta haitzuloetan bizi da, eta euretatik at jaurtitzen ditu berak eraturako ekaitzak. Batetik bestera ibiltzen denean inusturi eta tximistargi itzelak itxuratzen ditu. Beste batzuetan, senarra ostiraletan joaten zaionean ikaragarritzko ekaitzak jaurtitzen ditu haitzulotik kanpo. Lurpeko izakia da Mari airetatik bidaia egiten badu ere. Ez da zeruan bizi, bere jardunaldien agertoki hutsa besterik ez da. Marik Aketegin lixiba egiten du asteazkenero eta ogia ostiraletan; haitzulo haren ondoko lainoak adierazten ditu halako jarduerak. Oñatin eta Aretxabaletan diotenez, Mari Anboton izaten denean sano egiten du euria. Orozkon Supelauren izaten denean uzta ederra bil daiteke. Oartzunen ekaitzak Aralarren moldatzen ei ditu. Zegaman eta Goierriko beste zenbait herritan, ekaitzak bai Aketegi bai Murumendiko kobazulotik bidaltzen dituela esaten dute. Aranon Mugiroko leize batetik jaurtitzen dituela uste dute. Orduan berak, airetatik doalarik, zaldi-itxura hartzen du. Leitzako sineskizunen arabera, Maimurrek (Mari) putzu batetik igortzen ditu haize-ekaitzak. Beronek Maimurren zubia du izena. Araba herrian ekaitz hodei eta haizeak Okinako leizetik ateratzen direlako ustea nagusi da. Errioxa aldean Urbiongo osinetik etortzen direla esan ohi da. Tolosa aldean Marik, zaldiek erabilitako gurdi baten, hodeiak zuzenduz, ekaitzek dirauten bitartean, zerua zeharkatzen du

17. Honetatik guztionetatik atera daitekeen ondorioa hau da: herriaren eguraldi-esperientziaren datuetan oinarritutako mitologia honetan ez dago beraz,

eta hauxe da azpimarragarriena, gogo jainkotiar baten gidaritzza. Aketegitik eta Anbototik agertzen den ekaitzak euri ederra jaurtitzen duela jakinik, eta Aloña edo Murumenditik datorrenak ostera kazkabarra dakarrela, eguraldi-fenomeno guztien ondotik Mari jainkosa ikusten duen herriak bere egoitza-aldaketek sortarazirikoak izango balira bezala ulertzen ditu agerpen hauek guztiak, ez umore aldaketen ondorio gisa; eta gainera, herria ez da inoiz ere ahalegintzen bizileku-aldaketa horientzat ulerbideak bilatzen, berezko gertakizuntzat jotzen ditu eta. Euskal mitologiako meteorologiari lotuta dauden errealitateak, euritea nahiz sikatea, txingorraren kalteak edo uzta bikainak, gosea edo joritasuna ez daude patuaren artezkaritzapean, ez daude jainko guraritsu baten gogoak bideraturik, Naturaren bat-bateko arau ezezagunen mende baino. Azteken euriaren eta justuriaren jainkoa den Tlaloc ez bezala, zelden Taranis ez bezala, Mari ez dago inondik inora Naturak daukan indarraren gainetik. Mari naturaren indarra da. Euskal mitologian Lurra da Mari eta izaki guztien bizitokia, mitologia indoeuroparrean ez bezala. Mitologia horretan zerua dute egoitza jainkoek, ez dira lurarrak. Euskal jainkoen lurpean bizitze horrek gizakiekiko harremanak ahalbidetzen ditu. Herri indogermanikoen zeru-egoitza helezina da lurta hilkorrenzat. Euskal kontakizunetan Lurra ez da kosmosaren ataltxo kaxkar eta maneiagarria: Lurra kosmosa da. Lurrean bizi da den edonor eta edozer. Lurraren barnetik irteten dira oineztarria dakarten ekaitz-hodei goibelak, erauntsi beldurgarriak eta zirimolak. Eguzkiak eta Ilargiak ere Lurra dute bizilekua. Zerua edota ortzia, pasalekua, igarobidea baizik ez da. Euskal kosmologian Naturaren indarren egoitza Lurraren baitan dagoenez, lurpeak lur-gainarekin lotzen diren edozein haitzulotan azal daitezke une batez indar hauek. Honela, indar horiek gorpuzten dituen Mari ere toki askotan agertuko zaigu. Aniztasun horren egoitza Lurraren baitan datza. Bizitokia Zerua denean, Naturaren agerpenen jatorria jainko zerutiarren botereak direnean, aniztasuna ezinezkoa da; hau da, agertze guztiek erakustoki bakarra dute, Zerua, alegia. Horregatik euskal kosmosa “mikrokosmos”-etan dago banandurik. Berauek zenbat diren zehatz-mehatz esatea gaitza bada ere, Barandiaranek ematen digu horien berri: Mariren 30 izen eta 54 azaltoki desberdin jaso ahal izan ditu Euskal Herri osoan barrena.

18. Ikerketa antropolinguistiko hau egin ondoan, orain arte esaniko ondorio guztiak laburbildu beharrean gaude, lanaren helburua hobeto ulertzekotan:

a) Bildutako material guztiaren arabera, badirudi Aymeric Picaud errones frantsesak jasotako *Urcia* ez dela Jainkoa. Hitz honek, segur aski, ‘firmamento’ adierazi nahi zuen, eta ez ‘Zerua’, hau da, ‘jainkoen egoitza’.

b) Frogatuta geratu da *Ortzi* ez dela behin ere agertzen euskaldunen kontakizun mitikoetan.

c) Zalantzarik gabe, Mari da euskaldunen jainkosa nagusia. Berau ez da bizi Zeruan Lurrean baizik (lurpean zehatzago).

d) Eguraldiari lotutako fenomeno atmosferikoei dagokienez, bortitzenak, hau da, ekaitzak, trumoiak eta abar ez ditu Marik sortzen, sortarazi egiten ditu. Ez dira gertatzen Mari suminduta dagoelako edo. Ez. Mari bere egoitzatik edo bizitokieta-  
tik ateratzen denean suertatzen dira, edota, senarrarekin (Maju, Sugaar, Sugo...) elkartzen den guztietan.

e) Herri indoeuoparren kontzepzio mitologikoak eta euskaldunenak elkarren aurkakoak dira: bata, patriarkal-arrazionalista eta indibidualista, bestea, matriarkal-naturalista eta komunalista.

f) Gure ustez, lehen esan dugun bezalaxe, *Ortzi* mailegu linguistiko hutsa da, ez da inondik inora kontzeptuala. Sarritan aipatutakoaren arabera, herri zeltek ekarritakoa izan liteke.

g) Ageri denez, *Ortzi*-ren inguruan eratutako hiztegi guztian, eta eguraldiari lotutako berba gehienetan ere, euskaldunak fenomeno horiek Norbaitek sorrarazten dituelakoa dauka. Adibidez: euria ari du, ilundu du, elurra dakar, eguzkia atera du... Guk ez dugu uste antzinako euskaldunak *Ortzi* gogoan zeukanik. Mari jainko nagusia izango zuen gogoan, nonbait.

h) *Ortzi*-rekin zerikusirik ez daukaten hainbat hitz dauzka euskal lexikoak, eguraldiari dagokionez. Beronek beste ikerlan sakon bat merezi du.

## Bibliografia

- Akesolo, L. eta De La Sota, M. (1976, 1989): *Diccionario Retana de autoridades de la lengua vasca*, Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo.
- Arriaga, J.L. (1984): *Euskal Mitologia*, Gero, Bilbo.
- Arrinda, A. (1985): *Magia y religión primitiva de los vascos*, A.A.A., Bilbo.
- Azkue, R.M. (1935-1989): *Euskalerrriaren yakintza (literatura popular del País Vasco)*. Euskaltzaindia, Bilbo.
- , (1984): *Diccionario Vasco-Español-Francés*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Bähr, G (1931a): "El arco iris y la vía láctea en Guipúzcoa", *RIEV XXII*, 397-414.
- , (1931b): "Alrededor de la mitología vasca", *RIEV XXII*, 119-122.
- Barandiaran, J.M. (1972): *Diccionario Ilustrado de Mitología Vasca. Obras completas I*, Bilbo.
- , (1973): "Eusko Folklore", *Obras Completas II*, Bilbo.
- Bonaparte, L.L. (1880): "The ancient basque name of God", *The Academy*, Londres.
- , (1884-85): "L' arc-en-ciel en basque", *Melusine II*, Paris.
- , (1912): "Mots basques signifiant tonnerre", *RIEV VI*, 41-418.
- Bosch Gimpera, P. (1933): "Los celtas y el país vasco", *RIEV XXIII*, 475-486.
- Caro Baroja, J. (1948): "Sobre la religión antigua y el calendario del Pueblo Vasco", *Trabajos del Instituto Bernardino de Sahagún de Antropología y Etnología VI*.
- , (1989): *Euskal Jainko eta jainkosak, Olentzero eta sorginak*, Gaiak, Donostia.
- , (1973): *Los Pueblos del Norte*, Txertoa, Donostia.
- Eliade, M. (1974): *Tratado de Historia de las religiones I*, Cristiandad, Madril.
- Garate, J. (1932): "Astros y meteoros en vascuence", *RIEV XXIII*.
- Gorostiaga, J. (1934): "Urtzi Dios", *RIEV XXV*, 672-673.
- Hartsuaga, J.I. (1987): *Euskal mitologia konparatua*, Kriselu, Donostia.
- Hoz, J. (1981): "El euskera y las lenguas vecinas antes de la romanización", *Euskal linguistika eta literatura: Bide Berriak*, Universidad de Deusto, Bilbo.
- Irigoyen, A. (1987): "Algunas cuestiones relacionadas con la [j] en lengua vasca", *De re philologica linguae vasconicae*, Bilbo.
- Le Roux, F. (1981): "La religión de los celtas", *Las religiones antiguas III. libk.*, Siglo XXI., Madril.
- Mitxelena, L. (1957): "Las antiguas consonantes vascas", in (D. Catalán arg.), *Miscelánea Homenaje a André Martinet*, La Laguna I, 113-157.

- , (1985): *Fonética histórica vasca*, Julio Urquijo, Donostia.
- , (1987- ): *Orotariko Euskal hiztegia, Diccionario General Vasco*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Ortiz-Oses, A. eta Mayr, F.K. (1988): *El matriarcalismo vasco*, Universidad de Deusto, Bilbo.
- Ramos, M.G. (1928): *De Astronómica Vasca*, Gráficas Fores, Tarragona.
- Satrustegi, J.M. (1989): *Antropología y lengua*, Egile-argitaratzaile, Iruñea.
- Verdet, J.P. (1989): *El cielo, caos o armonía?*, Aguilar Universal, Madril.
- Vinson, J. (1870): “Le mot Dieu en basque et dans les langues dravidiennes”, *Revue de linguistique* II, 13 or., Paris.